

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen ordenantzaren eranskina aldatzeari

Udal honek, 2021eko urriaren 14ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren eranskineko c) epigrafearen (udal bide publikoen lurzorua, lurgainaren zein lurpearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia) 1. apartatua aldatzeari.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar egun izango dira interesdunek egoki iritzitako alegazioak eta oharrak egin ahal izan ditzaten. Egun horietan aipatutako erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko bihurtuko da.

Artziniega, 2021eko urriaren 22a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES